

# **KOOPERATIBEN ZUZENBIDEAREN ERRONKA BERRIAK**

## **0. Sarrera**

Denok dakigunez, hainbeste aldaketa gertatu da azken urte hauetan kooperatiben zuzenbidean, batez ere 1993ko Legearekin hasi zen ibilbide luzearen ondorioz.

Urte hauetan, aldaketa ugari azaldu da gure inguruko kooperatiben legedietan ere. Aldaketa horien artean, ondokoak aipa daitezke adibide gisa: kooperatiba-taldeen onarpena eta arauketa, Batzar Nagusien aginpide-esparruaren berregituraketa, finantza-baliabideen mota berriak, elkarte-eraldaketen aukera berriak eta abar.

Egia da aldaketa horiek guztiak, neurri handi batean kooperatibek beraiek eskatuta, interes handikoak izan direla lankidetzaren behar operatibo batzuei aurre egin ahal izateko. Hala ere, ez gaituzten engainatu. Aldaketa zehatz eta operatibo horiek ez dute aldatu kooperatiben legeen egitura, eta ez dituzte konpondu kooperatiben zuzenbidean azaltzen diren hutsune historikoak.

Azken urte hauetan egin diren aldaketak bideratzeko orduan, oso gutxitan hartu da kontuan kooperatiben zuzenbide konparatua. Abiapuntu hori garrantzitsua bada, oro har, sozietateen zuzenbidean, askoz garrantzi handiagokoa da kooperatiben zuzenbidean. Herri bakoitzeko kooperatiben legeak guztiz ezberdinak dira, ez itxuraz bakarrik, sakoneko egituraz eta oinarritzko tresnez ere bai. Horra hor zergatik egin ten zaigun nahitaezko beste herrietan erabili diren tresnen oinarri juridiko, ekonomiko eta soziologikoak astiro aztertzea. Beharrezkoa da abiapuntu hori ideia berriak jasotzeko eta gure legeen egiturak hobetu ahal izateko modu eraginkorren.

Bestaldetik, sozietateen zuzenbidean oro har, eta kooperatiben zuzenbidean ere bai, lege-aldaketak ezin dira egin irizpide juridiko hutsen arabera, kooperatiben zuzenbidean azken urte hauetan behin baino

gehiagotan gertatu den moduan. Ezinbestekoak ditugu soziologia eta ekonomiaren arloko azterketa sakonak, kooperatibei buruzko legeen oinarriko tresna eta egituretan egin behar diren aldaketak seriotasunez aztertu eta bideratu ahal izateko.

Sakoneko egiturak aztertuz gero, argi gelditzen da kooperatiben gaurko zuzenbidea zaharrituta dagoela. Legedien funtsezko egitura asko XIX. mendean daude oinarrituta; ez dugu inolako azterketa sakonik behar egitura zahar horiek mantendu, berraldatu edo desagertu egin behar diren erabaki ahal izateko. Egoera horrek azterketa serioa behar du. Eta azterketa serio hori, derrigor, kooperatiben gaur eguneko errealitatean oinarritu behar da, eta ez kontzeptu ideologiko edo abstraktu hutsetan. Tamalez, lankidetzaren arloan behin baino gehiagotan gertatu da, kooperatiben errealitatearen beharrei aurre egiteko benetako asmorik izan gabe, lege berriak edo legeen aldaketak bultzatu dutenek ideologia edo abstrakzio hutsak aldarrikatu eta hedatzeko asmoa bakarrik izatea. Hala ere, argi eta garbi esan behar da Euskal Herriko legeetan betidanik, beste leku askotan ez bezala, errealitatearekiko lotura estuagoa izan dela.

Euskal Herrian kooperatibek duten indar eta irudi sozialak paregabeko aukerak ematen dizkigu lankidetzaren legedia gaurkotu eta indartzeko orduan irizpide moderno eta serioak erabiltzen hasteko; aldi berean, nazioarte-mailan, lankidetzaren sustatzeko benetako borondatea duten hainbeste herrialdetan, erreferente argia bihurtuz.

## **1. Kooperatiben zuzenbidearen mugak. Lankidetzaren eta gizarte-ekonomia**

Datozen urteetan, kooperatiben zuzenbidean egindako aldaketa batzuei loturik, hausnarketa serioa egin beharko litzateke kooperatiben zuzenbidearen mugak zehazteko asmoz.

Bitariko kooperatibak, alde batetik, eta, oro har, kooperatiben legedi ezberdinetan arautzen den finantza-bazkideak, kooperatiben eta kapital-sozietateen legeen arteko mugen arazoa plazaratu dute. Hori dela eta, legegileek erabaki estrategikoa hartu beharko dute.

Ziur asko, oraingo bitariko kooperatiben bitartez edo antzekoak diren egituren bitartez, kooperatiben zuzenbidearen mugetara heldu gara. Hala ere, ez dugu ahaztu behar, eta hortxe daukagu azertu beharreko beste gai bat, konpondu gabe daudela kapital-sozietateen barruan botoaren ehuneko zehatz bat diru-ezarle ez diren stake-holderren eskuetan uzteko dauden oztopoak. Baina, ziur asko, ez dagokio kooperatiben zuzenbideari arazo multzo hori bideratzen hastea, merkataritzako sozietateen zuzenbideari baizik.

Bestalde, azken urte hauetan garatutako onura publikoko kooperatibek beste gai bat jarri dute mahai gainean. Hau da, enpresa edo ekonomia-helbururik ez duten jarduerak legez bideratzeko kooperatiben zuzenbideak duen gaitasuna. Eta hor daukagu epe luzeko beste erronka bat. Zer motatako jarduera-esparruak utzi behar dira elkarteen legeen eskuetan eta zeintzuk kooperatiben zuzenbidearen eskuetan?

Azkenik, hauxe da oso premiazko den beste azterketa bat: gizarte-ekonomiako arlo ezberdinak juridikoki bideratzeko orduan kooperatiben zuzenbideak izan dezakeen gaitasuna.

Nahiko argi dago gizarte-ekonomiaren funtsezko esparruak (kooperatibak, mutualitateak, aurrezki kutxak, lan sozietateak, enpresa jarduera duten elkarteak etab.) antzekoak diren irizpideen arabera eratzten direla. Batez ere, ondokoak dira irizpideok:

Enpresa-jarduera garatzen dute.

Kapital-izaera ez duen oinarrizko eraketa dute.

Elkarte-agintea, diru-ezarleen eskuetan egon gabe, jardueran parte hartzen duten beste "stake-holderren" eskuetan dago eta, bereziki:

- a.. **Enpresako langileak** (lan kooperatibetan, lan sozietateetan, autonomoak diren langileen elkarteak eta abar).
- b.. **Enpresaren hornitzaile edo bezeroak** (gainerako kooperatiba-motetan, mutualitateetan, enpresa-jarduera duten beste elkarteetan etab.).
- c.. **Aipaturiko bazkide-multzo biak aldi berean** (kooperatiba bateratzaileetan edo aurrezki kutxeetan)

Boto-eskubidea edo elkarte-eskubideen banaketa orekatua bultzatzen dute, dagokion bazkide multzoko kideen artean, eta, ia-ia beti, “bazkide bakoitzak boto bana” irizpidearen arabera.

Sakoneko izaera horren antzekoa izanik, zergatik dira horren ezberdinak enpresa-mota hauen eraketa historiko eta legezkoak?

Gizarte-ekonomiaren betiko legediek —batez ere kooperatiba eta mutualitateei buruzkoek— betidanik izan duten gehiegizko kasuismo eta formalismoa izan daiteke arrazoia. Hori dela eta, legedi horiek ez dira gai izan, beraien barruan izaera berdina edo oso antzekoa duten beste motatako erakundeak onartzeko.

Horren estua ez den kooperatiben legedi batek, ez zuen oztoporik jarriko, bere barruan mutualitateen antzeko erakunde-motak onartzeko.

Mutualitateak, sakonean, aseguru- edo sorospen-jardueraren arlo zehatz batean eta irizpide mutualista zehatzen arabera lan egiten duten kooperatibak baino ez dira. Gauza bera esan daiteke langileek edo erabiltzaileek osatzen dituzten eta enpresa-jarduera garatzen duten elkartei buruz.

Beste arlo batean, aurrezki kutxen oraingo eraketa sakonki aztertu beharko litzateke, bai eta erakunde horietan erakunde publikoek duten partaidetza gero eta txikiagoa ere, entitate hauek gizarte-ekonomiaren esparruarekin duten lotura argitzen hasteko, eta, zehazki, kooperatiben zuzenbidearen lan esparruarekin izan dezaketelarik elkar laguntza, gure inguruko herri batzuetan gertatu den moduan.

Beharbada, formalismo juridikoei garrantzi handiegia ematea izan da gizarte-ekonomiaren esparru zabalean horren legedi zatikatuak izatearen arrazoi funtsezkoena.

Horra hor kooperatiben zuzenbideak duen erroka funtsezkoa, teknikoki lehenbailehen aztertzen hasi behar dena. Jakina, azterketa horren barruan, gizarte-ekonomia osatzen duten egitura juridiko ezberdinen nortasuna eta arauen aldetik egon daitezkeen berezko beharrak kontuan hartu beharko lirateke, bai eta, nola ez, historian zehar landutako berezko terminologiaren inguruan sortu diren kultur berezitasunak ere.

## **2. Kooperatiba-motak berregituratzeko beharra**

Gaur eguneko legedien egitura hobetzeko eginbidean, nahiz eta lankidetzaren barruan bizi garenontzat ohikoa izan, nahitaezkoa da kooperatiba-moten gaur eguneko sailkapena berraztertzea.

### **2.1. Oraingo egoera nahasia**

Kooperatiben zuzenbidea ondo ezagutzen ez dutenei, bitxi-bitxi egiten zaie kooperatiba-motak zehazteko kooperatiben legeetan azaltzen den sailkapena.

Zinez, sailkapen hori egitean, nahasketa nabarmena dago arrazoi juridiko, soziologiko eta ekonomikoen artean. Adibidez, argi dago lan kooperatiben kontzeptua kooperatiba-mota horietan lan bazkideek duten gehieneko pisuari dagoela lotuta. Baina kontzeptu hori zalantzan jartzen da goitik behera, konturatzen garenean, adibidez, gauza bera gerta daitekeela beste motatako kooperatibetan ere (irakaskuntza-kooperatibak, elkarlanean ustiatzeko kooperatibak, aseguru-kooperatibak, osasun-sorospenerako kooperatibak, osasun arloko instalazioen kooperatibak, ezinduak gizarteratzeko kooperatibak, eta, jakina, bitariko kooperatibak ere). Kooperatiba-mota horietan guztietan, agintearen gehien-goia lan bazkideen eskuetan egon daiteke, eta, beraz, aldi berean, lan kooperatibak ere izan daitezke.

Ikusten dugunez, kooperatiba-motak sailkatzeko orduan erabiltzen diren irizpideak nabarri nahasten dira mota batzuetan eta besteetan.

Itxuraz, nekazaritza-kooperatibak, irakaskuntza-kooperatibak edo etxebizitza-kooperatibak zehazteko orduan, argi dugu erabiltzen den irizpidea kooperatiba horietan garatzen den ekonomia-jarduera dela. Hala ere, irizpide hori zalantzan jartzen da kontsumo-kooperatibak azaltzeko orduan edozein arlotako kontsumoa, eta ez bakarrik banaketa-sektorearen arlokoa, haren barruan sartzen delako; bazkideak, betiere, “pertsone fisikoak eta azkenengo hartzaile izaeradun erakundeak edo antolakundeak” izanik.

Bigarren mailako kooperatibak, argi eta garbi, kooperatiba horiek osatzen dituzten bazkideen arabera zehazten dira (bazkide horiek beste kooperatiba batzuk izan behar direlarik). Hala ere, hori ez dago batere argi, behin baino gehiagotan planteatzen baita, ea bigarren mailako kooperatibek helburu zehatz batzuk izan behar dituzten edo, alderantziz, ea posible

den kooperatiba-mota horiek dituzten helburu berberak beste motatako egituren arabera bideratzea (zerbitzu-kooperatibak batez ere).

Tamalez, kooperatiba-moten sailkapen kaotiko hori gauza nabaria izan da aditu gehienentzat, baina ez du ematen joera argirik dagoenik egoera tamalgarri hori bideratzen hasteko. Alderantziz, apurka-apurka, lege batetik bestera gero eta kooperatiba-mota gehiago sortzeko joerak badira izan.

## **2.2. Egindako saioen porrotaren arrazoiak**

Azken hamar urte hauetan, behin baino gehiagotan, saiakera gutxi batzuk egin dira egoera hori aldatzeko. Asmo oneko saiakerak izanik, porrot egin dute behin eta berriz. Zeintzuk izan dira saio horien porrotaren arrazoiak?

Gerotxoago aipatuko dugunez, saiakera horiek guztiek ez dute kontuan hartu oraingo legedien eraketa-sistema zalantzan jartzeak lankidetzaren ordezkari-tza instituzionala bera eratzeko orduan duen eragina, eraketa hau kooperatiba-moten sailkapenean baitago oinarrituta; eta, zehazki, kooperatibak ordezkatzeko dituzten elkarteak legedietan ezagutzen diren lege-moten arabera eraturik izatea.

Baina, duda-mudarik gabe, egoera hori konpontzeko izan ditugun arazoetatik garrantzitsuena kooperatiben zuzenbidean betiko arazo berbera izan da: bat-bateko jarduera, planifikaziorik eza. Aldaketa horiek proposatu direnean, ordutik hilabete batzuetara indarrean jarri behar zen lege berri baten aurreko proposamenak izan dira beti. Aldaketa sakonek, jakina, ikerketa eta azterketa sistematikoak behar dituzte. Bai eta, nahitaezkoa den gutxieneko adostasuna ere, horrelako aldaketetan interesaturik egon daitezkeen eragileen artean.

## **2.3. Kooperatiba-motak eta kooperatiben erakundeak**

Aurreratu dugunez, kooperatibak ordezkatzeko orduan sorturiko erakundeak, legean ezarritako kooperatiba-moten arabera sailkatzen dira ere. Horren arrazoa argia da. Legearen egitura ere, egitura juridikoen arabera baino, errealitate soziologikoan oinarritu da. Hala ere, ikusiko dugunez, errealitate soziologikoa onartu eta errespetatzeak ez du esan nahi errealitate horretan azaltzen diren erakundeen sailkapena bat etorri behar denik legeak aukeratu eta zehazturiko kooperatiba-moten zerrendarekin.

Kooperatiba-moten zerrenda, mota bakoitzak behar dituen arauei egon behar da loturik bereziki, eta ez kooperatiba-mota bakoitzak errealitate soziologikoan duen garrantzi handiago edo txikiagoari.

Kooperatiben erakundeek, berez, horren jakitun izanik, ez dute modu artifizialean bultzatu behar oinarri juridikorik ez duen sailkapen hori, eurek ordezkatzan dituzten kooperatiben epe luzeko interesen aurkakoa delako. Denon intereserako, argi eta garbi zehaztu behar da, hori bai, erakunde bakoitzeko kooperatibek behar dituzten arau bereziak; azken finean, helburu bera beste sailkapen hobeago baten bidez lor daitekeen aztertu behar da.

#### **2.4. Sailkapen berri baterako saioa**

Orain arte ohikoak izan diren kooperatiba-moten arteko ezau-gari erkideak eta desberdinak aztertuz gero, oso erraza da konturatzea kooperatiba-mota batzuek legetan agertzen direla helburu estetikoak betetzeko asmoz. Ahalegintzen bagara arauetan ezberdintasunik ez dagoen lekuan kooperatiba-mota ezberdinak ez sortzen, guztiz erraza da, ahalegin txiki batekin, legean agertzen diren kooperatiba-mota guztiak ondoko kooperatiba-motetan laburtzea.

Lan kooperatibak

Bezero edo hornitzaileen kooperatibak

Bitariko kooperatibak

Kooperatiba integralak

Horrela, garaturiko jarduera ekonomikoen arabera ezberdintzen diren beste horrenbeste kooperatiba-mota (nekazaritza, kontsumo, irakaskuntza, etxebizitzak eta abar) argi eta garbi bezero edo hornitzaileen kooperatiben esparruaren barruan laburbildu ziren.

Kontuan hartu behar da, orobat, sailkapen horiek laburbiltzeak ez duela esan nahi gure legetik derrigor desagertu behar direnik jarduera zehatz bat garatzen duten kooperatibei buruzko arau zehatz batzuk. Baina arau gutxi batzuk izatea jarduera bat antolatzen dutenak eta arau horiek kooperatiba-moten sailkapenaren barruan ezartzea oso gauza ezberdinak dira.

Argi dago, nire ustez, sozietate-egituraren arabera, bitariko kooperatibak oso izaera berezia duela eta kooperatiba mota berezi moduan sailkatzeko beste askok baino oinarri askoz handiagoa duela.

Eta, azkenik, kooperatiba bateratzaileak —hau da, lan bazkideak dituenak, nahiz eta gutxiengoan izan—, argi eta garbi kokapen berezi bat merezi du sailkapen horretan.

## **2.5. Sakoneko ezberdintasunak bazkideen arabera dira**

Aipatu berri dugun sailkapen horren arabera argi eta garbi ikusten dugunez, kooperatiba-mota bakoitzean dauden bazkide kooperatzaileen motak dituen ezberdintasunetan datza kooperatiba-mota batzuk eta beste batzuk ezberdintzeko sakoneko arrazoia:

Lan kooperatibetan, ezaugarri funtsezkoena da kooperatiba-mota horien boto-gehiengoa lan bazkideen eskuetan uztea.

Bitariko kooperatibetan, ezaugarri funtsezkoa, argi eta garbi, bazkide-mota berezi bat izatean datza, hain zuzen ere, akziodunena; dena den, akziodun horiek ezin dute izan, gehienez jota, boto osoaren ehuneko 49 baino gehiago.

Bezero edo hornitzaileen kooperatibetan, jakina, ezaugarri funtsezkoena da agintea, batez ere, kooperatibaren bezero edo hornitzaileen eskuetan egotea.

Kooperatiba bateratzaileetan, nahiz eta gehiengoa bezero edo hornitzaileen eskuetan egon, lan bazkideek ere agintearen ehuneko baten jabe dira.

## **2.6. Bazkideen arabera sailkapena**

Kooperatiba-mota guztien arteko benetako ezberdintasunak sakonduz gero, hauxe da topatzen duguna: lankidetzak behar duena ez da, gehienetan, kooperatiba-moten sailkapena, baizik eta bazkide-moten sailkapen egoki eta sistematikoa. Bazkide kooperatzaileak oro har alde batetik, lan bazkidea bestetik, eta akzioduna azkenik, bakoitza bere estatusarekin eta modu argi eta eraginkorrean arautzea da horretarako biderik egokiena.

Horrela, bazkide-mota horiek legedietan arautzeko erabiltzen diren teknikak, bai eta kooperatiba-moten arauketa bera ere, askoz modu eraginkorrago eta eratuagoan antolatzeko bidean jarriko ginateke. Gure ustez, ziur asko, hori da, argi eta garbi, inguruko kooperatiben legediek dituzten erronka funtsezkoenetatik bat.



### **3. Araubide ekonomikoaren erronkak**

Zalantzarik gabe, araubide ekonomikoaren arloan kooperatiben legea gaurkotzeko azaltzen diren erronkak kooperatiben eguneroko jarduerari lotuagoak daude, legearen beste arloetan baino askoz gehiago bederen.

Araubide ekonomikoan kooperatiben legeetan azaltzen den egitura zeharo ezberdina da, kapital-sozietateenarekin alderatuta. Ezberdintasun horren arrazoa, jakina, jabetzaren berezko egitura datza; diru-ekarleak enpresaren jabe ez izatean dago erronka horren jatorria.

#### **3.1. Kapitala**

Azken urteotan indarrean jarri diren kooperatiben legeetan, etengabeko aldaketak izan dira kapitalaren arauketan. Aldaketa gehienak kapitalaren ordainsarian agertu dira, baina, bereziki, kapitalaren figura berrietan. Figura berri horiek, izen ezberdinekin —partaidetza bereziak, partaidetzako tituluak, menpeko finantza-ekarpenak eta abar— enpresa-erronkei aurre egin nahi diete, kooperatiben kapitalak betidanik izan dituen arazoak konpondu nahian. Hori bai, ez betiko kapitalaren egitura eraldatuz, baizik eta kapital-egitura berri eta bereziak sortuz egoera berezietan erronka horiei aurre egin ahal izateko.

Azken urte hauetako legedi berriek egindako ahalegin hori ahaztu gabe, ez dago zalantzarik egindako aldaketak ez direla egiturazkoak izan, baizik eta, esan dugunez, bigarren mailakoak.

Behar diren sakoneko azterketak eginda, eta kooperatiben kapitalaren izaera eta eginkizunak berraztertuta, ordua da legearen egitura bera berraztertu eta, behar izanez gero, gaurkotzeko.

Horretarako, kooperatibek eta kooperatiben erakundeek, kanpora begira egon gabe, kapitala metatzeko kooperatibek dituzten arazoei aurre egiteko dauden beharrak sakonki aztertu behar dituzte. Hori dela eta, kooperatiben berezko ondare- eta finantza-egituran kokatu behar dute azterketa hori, egitura horretan behar diren egokitzapenak ezarri, baliabideak eskuratzeko eta kapital-merkatura heldu ahal izateko.

Alde horretatik, hauxe da aztertu behar den gaia: kooperatiben barne finantza-egituran zer-nolako aldaketak egin behar diren kapital-merkatura heldu ahal izateko galdagarriak ez diren baliabideak eskuratzeko asmoz, akzioak ez diren finantza-tresnen bidez.

Hori dela eta, kooperatiben kapitalaren egitura tresna egokia izan behar da:

Kooperatiben bazkideek beraien borondatezko ekarpenak errazteko.

Etekinak kapitalizatzeko orduan edo nahitaezko kapital-ekarpenak erabakitzeko, Batzar Nagusiaren erabakiak ere errazteko.

Kooperatiba handietan batez ere, hirugarrenen kapital-ekarpenak erakartzeko aukera emateko.

Hori guztia kontuan hartuta, eta legeak kasuan-kasuan ezarritako aldaketak ikusita, gaur egunean gure inguruko kooperatiba asko eta asko jadanik ez dira kapital aldagarri hutseko kooperatibak, baizik eta, gehienetan, bitariko kapitala —finko eta aldagarria— dutenak.

Beste aldetik, kontuan hartu behar dugu nazioarteko kontabilitate-arauek dakarkiguten erronka berria. Hori dela eta, kapitalaren kontabilitatean berezko baliabideen izaera gorde nahi badugu, sakoneko aldaketak ezarri beharko dira kooperatiben betiko kapitalaren egiturari.

Aldaketa horiek, nahitaez, oraingo kapitalaren galdagarritasuna zalantzan jarri beharko dute neurri batean, edo, gutxienez, sakonki eraldatu.

Hori dela eta, zalantzarik gabe, kooperatiben kapitalaren egitura osoa berraztertzeke une egokia heldu da, ahal den neurrian, egitura zaharrak eta berriak kapital-eraketa bakar baten barruan egokitzeke.

Eraketa berri horretan, gure ustez, ondoko bi ezaugarriok bete beharko dira derrigor:

Kapitalaren eskualdagarritasuna, behar-beharrezkoa delako kapital-merkatu heldetzeko eta kapitalaren eraginkortasuna ziurtatzeko.

Kapitalaren berezko baliabide-izaera gordetzea, kooperatiben finantza- eta ondare-irudirako ezinbestekoa delako.

Abiapuntu horiek hartuta, astiro aztertu beharko dira kapitalaren beste ezaugarriak, eta, batez ere, korrituak edo ordainketak.

Badaezpada, eta denok lasaitzeko asmoz, azken urte hauetan egindako aldaketa guztietan inoiz ez direla zalantzan jarri kooperatiben kapitalak gorde behar dituen funtsezko ezaugarriak gogoratu behar da, eta, batez ere, botorik izan gabe, kapitalak izan behar duen berezko finantza-izaera ere ez.

### 3.2. Etekinak

Lehen esan dugunez, zeharo ezberdinak dira kooperatiben eta kapital-sozietateen ekonomia-egiturak. Eta ezberdintasun horien artean, guztiz azpimarragarria da etekinaren kontzeptua bera. Kasu honetan ere, ezberdintasun horren jatorria kooperatiben jabetzaren berezko izatean datza.

Hala ere, oso argi gelditu behar da etekinaren kontzeptua ez dagoela zehatz-mehatz bideratuta kooperatiben zuzenbidean. Egiatan, bi motatako egituraketa oso ezberdinak daude kooperatiben legedian.

Lehenengo egituraketak, guk ezagutzen dugunak, Espainiako legedian edo Portugaleko legedian indarrean dagoenak, hauxe du abiapuntu:

Kapitalaren ordainsaria gastutzat jotzen da.

Bazkideen ordainsaria zatitu egiten da: urtean zehar ordaintzen dena gastutzat jotzen da, merkatuko salneurrien arabera. Hortik gora, urteko kontuak itxita, Batzar Nagusiaren erabakiaren bidez bazkideei ordaintzen zaien ordainsaria —lan saria lan kooperatiben kasuan— etekinaren banaketatzat jotzen da.

Nahiz eta etekinaren kontzeptu hauek gure inguruko kooperatibetan betidanik sustraituta egon, oso modu ezberdinean egituratzen dira kanpoko beste legedietan:

Bazkideek egindako lana edo operazioen truk lortutako ordainsari gutzia gastutzat jotzen da, gure erretornoak barne.

Kapitalaren korritua edo ordainsaria etekintzat jotzen da.

Kontzeptu-arazo hau mahai gainean ezarri zen, Espainiako ICAC (Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas) Kooperatibentzako Kontabilitate Plan berezia lantzen hasi zenean. Orduan, sakoneko azterketa kontzeptuala erabili zen arazo horri aurre egiteko. Hala ere, irtenbide praktikoa bat iritsi zen eta, ikusi behar dugunez, behin-behinekoa.

Benaz, epe motzera, nazioarteko kontabilitate-arauak indarrean jarrita, oso zaila izango da horren ezberdinak diren etekinaren kontzeptu horiek irautea Europar Batasunean.

Nazioarteko kontabilitate-arauak Europa osoan indarrean jartzaren helburu funtsezkoa, jakina, kontabilitatearen kontzeptu orokorrak Europako erakundearen artean bateratzea izan da, eta, beraz, lehenago edo geroxeago, baina hemendik urte batzuetara, ezinbesteko egingo

zaigu etekinaren kontzeptu hori bateratzea. Gure kooperatiben legedian, ondorenez, hobe lehenbailehen hasten bagara aztertzen arazo hori aurre egiteko ezarri behar diren neurriak.

### **3.3. Eragiketen ordainsaria eta lan aurrerakinak**

Aipatu dugun etekinaren kontzeptu horri loturik, funtsezko arazoak dituzte kooperatibek, eragiketen ordainsaria edo lan aurrerakinak neurtzeko erabiltzen diren tresnak eta neurriak direla eta.

Arazo horrek egiturazko ondorioak ditu jakina, etekinaren sozietate-kontzeptua berari loturik dagoen neurrian eta, esan dugunez, kontularitzarekin, baita zerga arloko oinarri ezargarriari ere.

Aurreratu dugunez, eragiketen salneurriak —eta, lan kooperatibetan, lan aurrerakinak— nahitaezkoak dira, eragile funtsezkoak, etekina zehazteko orduan. Hala ere, bazkideen eragiketen benetako salneurri osoa, lehen esan dugunez, urtean zehar ordaintzen den kopurua alde batetik eta etekin gisa ordaintzen denaren artean banandu ohi da gure legedietan. Hori dela eta, sailkapen hori etekinen kopurua zehazteko giltzarri bihurtzen zaigu. Eta kooperatiben zuzenbidearen funtsezko arazoetako bat da, hain zuzen, kontzeptu biak ezberdintzeko irizpide argi eta objektiborik ez egotea.

Kooperatiba-mota guztietan, neurri batean edo bestean, elkte-organoek nolabaiteko gaitasuna dute eragiketen salneurriaren kopuru osoaren barruan zein kopuru hartuko den gastuzat eta zein kopuru banatuko den etekin gisa erabakitzeko.

Egiantan, diskrezionalitate horrek, lehen esan dugunez, zalantzan jartzen du, hasteko, kooperatiben kontabilitatearen etekin-kopurua eta, jakina, sozietateen zerga ordaintzeko erabiltzen den oinarri ezargarria ere. Zenbaitetan, kooperatiben salneurrien kudeaketaren eraginkortasuna bera zalantzan jartzeko moduko arrazoia da.

Ziur asko, egoera horrek barruko kudeaketan sorrarazten ditu eraginik kaltegarrienak. Diskrezionalitate horrek oso zail egiten du barruko gastuen kudeaketa eraginkorra, bai eragiketen kostuen aldetik —lan kostuen aldetik lan kooperatibetan—, bai eta nahitaezko funtsetara etekinetatik bideratzen diren kopuruen kudeaketaren aldetik ere.

Kooperatiben kudeaketa eraginkorra izan behar bada, ezinbesteko du kooperatiben zuzenbideak egoera honentzat irtenbide bat topatzea. Erreferentziazko eta zeharkako irizpide batzuk erabili dira, batez ere orain arte, merkatuaren erreferentzia-irizpide horiek ez baitira batere

zehatzak. Azterketa serioa hasi behar da kooperatiba gehienek, eta, batez ere, lan kooperatibek duten erronka horri lehenbailehen aurre egiteko.

### **3.4. Etekinaren banaketa**

Azken urte hauetan egindako azterketen ondorioz, argi gelditu da kooperatiben zuzenbidean etekinak banatzeko orduan indarrean dauden irizpideak berraztertze beharra.

Alde batetik, argi dago orain indarrean daukagun sistemak jatorri historiko zehatza duela eta, batez ere, XIX. mendeko lankidetzaren kulturaren oinarritzen dela. Bestaldetik, argi dago etekinak banatzeko irizpideak guztiz ezberdinak direla legedi batetik bestera, Europako legedien artean.

Eta hori dena, ez bakarrik lehen aipatu dugun ikuspegitik, hau da, etekinak banatzeko orduan kapitalaren salneurria edo elkarlanaren salneurria kontuan hartzearen aldetik, baizik eta nahitaezko funtsetara bideratu behar diren kopuruen aldetik ere, eta, batez ere, erreserba-funtsetara bideratu behar diren diru-kopuruen ikuspegitik.

Beste aldetik, erreserba-funtsetara bideratu ohi diren ehunekoak berraztertze beharra ez da bakarrik azaltzen zuzenbide konparatuaren azterketatik. Badira arrazoi tekniko objektiboak ere berrazterketa hori abian jartzeko; batez ere, azaldu behar dugunez, kapitalaren eraketan azken urte hauetan sortu diren eraldaketak eta, zehazki, kapital finkoaren figura berriak.

Kooperatiben zuzenbidearen egile serio guztiek onartzen dute Kooperatiben Zuzenbidean erreserba-funtsetara egiten diren ekarpen handien arrazoiak, kooperatiben betiko kapitalaren aldakortasunean datzala. Erreserba-funts handiak sortzea izango litzateke, beraz, kooperatibek duten tresna bakarra, beraien kapitalaren aldakortasun horri aurre egiteko.

Lehen azaldu dugunez, errealitate hori goitik behera aldatu da azken urteotan, eta, kooperatiben legediaren gaur eguneko errealitatean, kapitala finko eta aldakorra dugu. Bitariko errealitatea da beraz.

Hori dela eta, funtsezko erronka bat dugu kapital finko horren azterketa lehenbailehen egiteko eta, zehazki, erreserba-funtsek orain arte izan duten helburu berberak betetzeko gai diren edo ez. Ez dugu ahaztu behar erreserba-funtsetara egin diren ekarpen handi horien bidez kooperatiben sendotzea bultzatu dela, bazkideen pizgarrien kalte. Teorian, hauxe da aztertu behar duguna: zein puntutaraino, kapital fin-

koaren erabileraren bidez, kooperatiben finantza-egituren indartzea eta bazkideen pizgarria bateragarria den.

### **3.5. Erreserbak**

Nahitaezko funtsetara egindako ekarpenetatik aparte, erreserben eraketa bera ere jarri da zalantzan azken urteotan.

Alde batetik, eta hau gauza jakina da, behin eta berriz berraztertuta da azken urteotan nahitaezko erreserben oraingo eraketaren ondorioz kooperatibaren likidazioan bertan banatu ezin izatea eta kanpoko erakunde publikoen eskuetan uzteko beharra. Azterketa horrek ez du oraingoz irtenbide argirik izan, eta, beraz, ahal den neurrian, sakondu beharko da.

Bestaldetik, erreserbei loturiko eta aztertu beharreko beste gaiak hauek izan daitezke:

- nahitaezko erreserba eta borondatezko erreserben arteko sailkapena
- borondatezko erreserben eraketa bera
- erreserben balizko banaketa, eta horren baldintzak eta ezaugarriak.

Azkenik, erreserben esleipena izan da azken urte hauetan gehien landu den gaia. Alde batetik, zenbait arautan, esleipen hori egiteko aukera landu eta argitu egin delako. Bestaldetik, esleipen hori egiteko beharra gero eta argiago gelditzen ari delako galerei aurre egiteko bazkideek duten beharraren ondorioz eta behar hori arautzeko orduan sortzen diren azterketa teknikoaren ondorioz.

Kontzeptu horiek guztiak astiro aztertu behar dira kontuan hartuz erreserben zuzkidurak, beraien nahitaezko edo borondatezko izaera, beraien balizko banaketa, eta, azkenik, erreserben esleipen bera, garrantzi handiko gaiak direla, alde batetik, kooperatiben finantzaketan eta sendotze ekonomikoan, eta, bestetik, bazkideen pizgarrian.

## 4. Bazkide-mota

Esan dugunez, kooperatiben legediaren egitura argitzeko eta apur bat gehiago sistematizatzeko ezinbestekoa da kooperatiba-moten sailkapena argitzea, eta, batez ere, eta aurrekoari lotuta, bazkide-moten sailkapen eta arauketa hobetzea.

Aldaketa horiek bi motatako ikuspegi ezberdinetatik azter daitezke:

Aldre batetik, kooperatzaile ez diren bazkideen ikuspegitik (batez ere, bazkide laguntzaileak delakoak eta bitariko kooperatiben akzio-dunak). Badira, berebat, antzeko baina beste mota bateko bazkideak, kontuan hartzekoak direnak (jardunik gabeko bazkideak, bazkide ez erabiltzaileak).

Argi dago bazkide-mota hauek guztiak argitzen hasteko nahitazkoa dela mota horien guztien sailkapena erraztea, jardueran parte hartu behar ez duen bazkide mota bakar baten bitartez. Izena, jakina, ez da garrantzitsua, baina logikoena izan daiteke, adibidez, Europako Kooperatiben Estatutuaren irizpideei helduz, “finantza-bazkide” deitzea. Ziur asko, legean argitu beharko litzateke, estatutuek honela adieraziz gero, bazkide hauen eskubide eta betebeharrak kapital-sozietate edo, nahi izanez gero, sozietate anonimoen bazkide edo akziodunen eskubide eta betebeharren arabera arautuko direla. Horrela, bitariko kooperatiben helburu funtsezkoenak beteko lirateke aldi berean.

Bestaldetik, kooperatzaile diren bazkideen esparrua. Bazkide-mota hori sailkatzeko orduan, kontuan hartu beharko litzateke oraingo kooperatiba-motak sailkatzeko beharrezkoak diren ezaugarriak dituzten bazkideen arauketa.

Horrela, ondoko gutxieneko bi esparruak aurkituko genituzke:

Lan bazkidea

Hornitzaile edo bezero den bazkidea.

Lan bazkidearen arauketaren barruan, lan kooperatibeei loturik dauden arau gehienak hartu beharko lirateke kontuan.

Hornitzaile edo bezeroen kasuan, irizpide bereziak jarri beharko lirateke indarrean, agian, jarduera zehatz batzuk bideratzen direnean kooperatibaren bitartez; adibidez, mailegu- edo aseguru-jarduera, etxebizitzak eta abar. Baina, hori bai, ezaugarri edo arauketa berezi horiek ez lirateke lotu behar kooperatiba-mota edo -sailkapen berezi batekin.

## **5. Kooperatiba-elkarte mota berriak. Taldeak eta arloak**

Sozietateen zuzenbidearen beste esparruetan gertatzen den moduan, kooperatiben zuzenbidean ere hasi da gertatzen gero eta nabariagoa den egoera bat: kooperatiba-elkartea ez da jadanik enpresa-egiturak bideratzeko legeak onartzen duen eraketa bakarra. Gero eta gehiago, merkataritzako zuzenbidean gertatzen den moduan, enpresa-taldeek kontzeptua indartuz doa unitate ekonomiko bat osatzen duten sozietate-multzoak arautzen hasteko tresna gisa. Bide horretatik doa, apurka-apurka, kooperatiben zuzenbidea ere.

Enpresa-taldeek kontzeptua behar-beharrezkoa da kooperatiben zuzenbidean, kooperatiba-taldeek egitura berezi hori onartu eta arautzeko orduan.

Azken urte hauetan hasitako bideari segiz, kooperatiba-taldeek merkataritzako arauketa eta kontabilitate arloko arauketa ere argitu eta sakondu beharko dira.

Azkenik, merkataritzako zuzenbidean ezezaguna den beste kontzeptu bat dago kooperatiben zuzenbidean: kooperatiba-arloen kontzeptua. Egitura horren bitartez, bideragarri egiten da kooperatiba baten barruan, kontabilitate eta elkarte organoen berezko egitura duten lan esparruak ezberdintzea. Egitura horiek argitu eta zehaztea garrantzi handikoa izan daiteke kooperatiben enpresa-bideragarritasunerako, kontuan hartzen badugu holding delako egiturak sortu eta eratzeko kooperatibak duten berezko zailtasuna.



## **6. Amaiera**

Ikusi dugunez, kooperatiben legedia gaurkotu eta bultzatzeko aurrean dugun erronka erakargarria da. Bai ikuspegi teknikotik, bai eta lankidetzaren etorkizuna bultzatzearen ikuspegitik ere, ez dugu denbora galdu behar lanean hasteko, aipaturiko lan-ildo horiek garatzeko asmoz.

Hala ere, eta hasieran esandakoari lotuta, ez dugu ahaztu behar helburu horiek eskuratzeko metodologia egoki eta serio batek duen garrantzia. Eta horrek eskatzen du, jakina, berehalakoan lan egiten has-tea, denbora galdu gabe, baina legearen aldaketak behar baino lehenago planteatu gabe ere. Legearen edozein aldaketa egin baino lehenago, beharrezkoak diren azterketa guztiak egin behar dira, aipaturiko lan-ildo-ak —edo beste batzuk— sakonki aztertzen hasteko, ondorio argietara heldu ahal izateko eta, behar denean, kooperatiben ordezkariekin beharrezko kontraste instituzionalak eginez.

Oraingoan, beraz, lan sakon eta ganorazkoa egin behar dugu: kooperatibak, kooperatiben erakundeak eta erakunde publikoak elkarre-kin lan eginez, denontzat interesgarri diren helburuen bila eta aurrean daukagun erronka erakargarri horri modu eraginkorrean aurre egiteko asmoz.

***Adrian Celaya Ulibarri***  
***Zorione Arregi Elkorobarrutia***